

HAN @ HAN

HAN PITTU HAN-Euskaldunon konpartsaren aldizkaria

5.366. 1.997.eko Abendua

Urte Berri On

1997 bere azken urratsak ematen dituen bitartean euskaldunok ez dugu aspertzeko astirik eta berriro jaia eta errebidikazioa eskutik datoz.

Abendua ospakizun betetako hilabetea da, Durangoko azoka, Santotomasak, neguko solstizioa, gabonak, gabonzaharrak, lagun arteko afariak eta abar.

Data hauek hain bereziak izanda senide edo lagun baten ezak mintzen du eta hare gehiago pertsona maitatu hori espetxeratuta baldin badago.

Aldizkari honetatik jai guzti horietan gozatzeko deia egiten dizue baina Euskal

Herrian egongo ez diren ehundaka euskaldunak gogoan edukiaz.

Bestalde berriro gelditu da agerian euskaldunontzat ez dagoela justiziarik eta adierazpen askatasuna beste eskubide askoren artean soilik poteretsuen eskuetan dagoela.

Hemendik aurrera beste 23 euskaldun dago gogoan edukitzeko, beraien eta euskaldunen eskubideen alde burruka egin duten guztien omenez Abenduko ale hau egiten dugu.

Konpartsaren gaiei bueltatuz ale honetan Abenduko ekintzen

berri edukiko duzue, Santotomas egunen zita daukagu beraz jantzi kamiseta eta prestatu zaitez ehundoko jaia pasatzeko.

Azaroako afariaren berri emango dizuegu eta jakingo dugu Euskarak eskubide historikoak dituela.

Sarrera honekin bukatzeko azkeneko berri bat ematea gertatu zaigu, aldizkari honek aldaketa batzuk edukiko ditu zuei itxura eta mami interesgarriagoak eskaintzeko, agian urtarrilean sorpresaren bat emango dizuegularik.

Besterik gabe Santotomas egunerarte.

Afariaren kronika....3

SANTO TOMAS-AREN

egitaraua..4

Euskaldunon eskubi-deak.....4



Eta orain....
**OLENTZERO
KARTZELARA**

2. orrialdea.



OLENTZERORENTZAKO EZ DAGO JUSTIZIARIK.

Hilabete honetan olentzeroren aurkako epiaketa burutuko da. Epaitzen diren gertaerak ihazko gabonetan gertatu ziren, Olentzero gure herrira umeei opariak egiteko asmoz hurbildu zenean. Arenalean zegoela bere lana hobeto burutzeko asmotan metroko geltokira urbildu zen hura hartzeko nahian. Barruan zegoela, seguritateko bi kide ingurutatu zuten saku barruan zeukana erakuzteko eta

identifikazioa eskatuz. Eskaera erdera hutsean egin zenez gure Olentzerok ez zuen ulertu eta horixe bera esan zien gure hizkuntzan.

Zaintzaileen erantzuna ez zen makala izan eta indarrez kendu nahi izan zioten sakua. Olentzerok erdera ez jakiteaz gain oso ondo daki ze nolakoak diren uniformedun hauek, gogoratu urtero joan behar dela espainako eta frantziako hainbat espetxetara Euskal Presoiei

opariak banatzera, eta opariak defendatu zituen. Protecssakoei bultzada bat eman ostean korrika ateraz zen kalera eta han hiru lagunekin topo egin zuen, Tartalo, Basajaun eta Garazi izeneko sorgin batekin. Handik gutxira "policia vascongada"-ren patrulla bat etorri zen eta laurak atxilotu zituzten. Behin ikusita zer gertatu zen irakur dezagun txosten poliziala:

"Bilbao, 24 de Diciembre de 1.996

En la noche de hoy hemos procedido ha arrestar a cuatro indibiduos en las cercanias de la estación del metro de San Nicolas. Los susodichos indibiduos se niegan a hablar haduciendo el desconosimiento del español. No emos podido identificarles y les hemos puesto mote, el gordo con chapela, el jevi semidesnudo, el tuerto y la camello.

El gordo con chapela havia protagonizado un incidente en el metro y en momento del arrestro llebaba un saco lleno de libros en vasco, compas diskettes de Maisa ta isiar (la del euscara o ke) y grupos asi, bideojuegos (que hemos requisado para uso en comisaria) y demás material. En total portaba alrededor de tres millones de objetos que aún no sabemos de donde los ha robao.

El jevi semidesnudo unicamente portaba un taparrabos de piel de cierbo por lo que lo hemos trincao por escandalo pubico y matanza de animalejos.

El tuerto, aparte de medir dos metros y medio, portaba una porra hecha con un tronko de arbol. Tubimos que traer tres furgonetas de agentes para detenerle, asi que lo hemos pillao por abuso de fuerza con la autoridas y por mandar a quinze de nosotros al ospital.

La camello portaba diversas hiervas y pocimas, que aunque hemos mandado al laboratorio a analizar, creemos que colocan mogollón. Personalmente creo que es de esas que come monguis.

Acabado este informe me retiro a mi casa a esperar que Papa Noel me traiga la coleccion de Power Rangers que le he pedido."

Ba dakizue, beraz, non gelditu zen ihaz Olentzerok ekarri behar zizuen opari hura.

ASMAKIZUNAK

1. Asmakizuna
 - Txoria izango balitz loro bat izango litzateke.
 - Lore bat izango balitz larrosa ori bat izango litzateke.
 - Oporretara joango balitz Europatik kanpo joango litzateke.
 - Arropa erosiko balu arropa dotorea erosiko luke.
 - Pertsona honi musika euskalduna entzutea gustatuko litzaioke.
 - Opari bategingo balu Athletic futbol taldearen argazkiak oparituko lizkiguke.
 - Opari bat egingo bagenio afari batera gonbidatuko genuke.
 - NOR DA?

2. Asmakizuna
 - Zer dela eta ez dela Bilboko jaietan jaiotzen dena, eta Bilboko jaiak bukatu ondoren hiltzen dena?

3. Asmakizuna
 - Zer dela eta zer ez dela Hau Pittu Hau konpartsakook asko maite duguna eta gure ikurra dena?

4. Asmakizuna
 - Zer dela eta ez dela Egunkari konpartsakook bahituta dutena, eta Bilboko jaietan paseiatzera ateratzen dutena?

4. Elefantea.
3. Marraskiltoa.
2. Mari Jata.
1. Luis Fernandez.

Soluzioak





AFARIAREN GUTXIGORABEHERAK

Jakingo duzue, konpartsaren afaria izan zen joan den azaroaren 28an. Ostirala alegia. Eta Santutxun Txalaparta Eguna antolatu zen egun bera, afariari lagun asko ohostuz. Bai, konpartsakide maiteok, jende ugari falta izan zen, baina bildu ginenok kategoriazkoak ginenez, gaitzerdi.

Eta afariaz, zer? Ba, hasteko, haragijaleen partez eskerrik beroenak antolatu zutenentzat, behingoz beraiekin (geurekin) akordatzearren. Bazen garaia kolesterolari merezi duen omenaldia eskaintzeko! Okela izan zen, bai, mahai gaineko protagonista (aulki gainekoa, zalantzarik gabe, Kanpi izan zen), baina ez gara luzatuko menu kontuak aipatzen. Joan ez zirenei, ez diegulako inbidiarik sortarazi nahi. Joan egin zirenei, batzuen kasuan Bilboko kaleren bateko balizko zuhaitzaren ongarri gisa botatakoa zerez eginda zegoen ez

gogoraztegitik. Atzo handik pasatu ginen eta ez zegoen, artean, haritzik. Pazientzia.

Honelakoetan afalostea izan ohi da interesgarriena, eta hari horri helduko diogu lehen bailehen. Hala ere, morbozaleentzako ohar gisa, zera esan behar dugu: gorabehera handirik ez zen izan, edo, agian, hau idatzi dugunok ez ginen larfin ibili begi eta belarriak norabide egokirantz zuzentzen. Hots, nor norekin enroilatu den (horren zain zintaten, eh?) ez duzue lerro hauen bitartez jakingo. Ezta inor inorekin enroilatu bazen ere. Edo norbaitek Plaza Zirkularrean dantzan amaitu bazuen, gorputza dagokion jantzi intimoaz soilik estailirik. Edo...

Eta eman dizuegun de zepzioagatik parkamena eskatuz, aurrera goaz: afaldu eta gero, poteo ekidiezina (bueno, ekiditeko gogo handirik ez geneukan, egia esan) inauguratu

genuen. Euskaraz... eta alhoholaz, nola ez.

Apurka-apurka, etanolaren tenplo sakratuei bisita egin genien, haren eraginak begibistakoagoak bihurtu ahala, euskalki bitxi eta orain arte ezezagunak entzuteko parada izan genuelarik. Portzierto, gero eta jende gutxiago hasi zen geratzen, orduak aurrera zihoazela. Hasierako hogeita hamarreko taldea erabat murriztuta (eta zatituta) zegoen Kafe Antzokira joatea erabaki genuen ordurako. Agian, hantzetorkiguna aurreikusita egin zuen batek baino gehiagok alde.

Kafe Antzokia, Bilbon euskaldunontzako bilgunea... ostiral eta larunbat gauetan ezik. Pena da. Baina ez dira hauek une eta lekurik

aproposenak gaiaz hausnarketarik jaurtitzeko. Gehienok sartu ez ginela esateaz konformatuko gara, beraz. Azkenean, datu fidagarrien arabera jakin izan dugunez, hurbileko antro batean betiko euskal abesti tradizionaleen errepertorioa kantatu zuen, batere kupidarik gabe, taldetxo batek.

Eta gutxi gora behera, horixe izan zen Hau Pittu Hau-ren afari mundiala. Ez zaigu Gipuzkoatik etorritako delegazioari eskerrik zintzoenak ematea baino geratzen. Are gehiago, kupidarik gabe egindako azken orduko atentatu musikala euretako baten lan eskergari zor zaiola kontuan hartuta.

Eta parkatu kotileorik eza.

HAUEK ERE
KARTZELARA



SANTO TOMASAK

Abenduaren 20 an, Larunbata (Aurten egun horretan ospatzen da)

Goizeko 11:00etan

DENOK JAUNAK TABERNAN


Konpartsaren Kamisetaz eta baserritar itxuraz.

EGITARAUA:

- 12:00-14:00etara Txanda Bilboko Konpartsen Txosnan, Santiago Enparantzan. (Zenbait eta jende gehien hobe, ahal badugu ordubeteko bi txanda egingo ditugu).
- Herri Bazkaria Santiagon.
- Arratsaldean Euskal erronomia leku berean.
- Gaez Bertsotrikikalejira Eguzkizale eta askapeñarekin batera.

Ez HUTSIK egin (oraingo honetan ondo ipini dugu).

Euskarak Eskubide Historikoak ditu.



Euskara geure ondarea da, eta gu gara honen jabeak, ez alderantziz. Beraz egungo eskubideak ditu, ez historikoak.

Komunitate linguistiko baten helburua Hizkuntzaren bitartez IZATEA da. Hizkuntz arbasoen izaeraren garraiolaria eta gure etorkizuneko proiektua da. Teoria gehienek diote hizkuntza nazio nortasunaren funtsezko oinarria dela.

Beraz, euskararen bizi iraupena gu euskaldun gisa bizi ahal izateko interesatzen zaigu.

Ondare hori lapurtua izan da, eta batzuei emaitzak interesatzen zaizkie. Horrela, historia ahaztea gure buruaz beste egitea izango litzateke.

